

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntza SKOLAE ezarrita duten ikastetxeekin elkartu da familiekiko komunikazioan aholku emateko

Goizean dagoeneko SKOLAE programaren baitan dauden zentroetako zuzendaritza taldeei, familiek egin ohi dizkieten galdera ohikoen erantzunak azaltzen diren dokumentua eman zaie

Asteartea, 2019.eko urtarrilak 29

Hezkuntza Departamentuak informazio jardunaldia egin du goizean SKOLAE programa ezarrita dauden ikastetxeekin familiek eduki ohi dituzten zalantzen aurrean nola erantzun jakin dezaten. Topaketa hau Departamentuak SKOLAEren jarraipena eta kudeaketaren inguruan egiten dituen ohiko bileren barruan gauzatu da. Zita honen helburua familiei informazio zehatza helaraztea da familiak zuhurtziaz eta hezkidetzaren programaren benetako edukiarekin informatu ditzaten.

Hezkuntzako zuzendari orokorrak, Roberto Perez, ebaluazio, kalitate, hezkuntza, berdintasuna eta elkarbizitza zerbitzuko zuzendari, Aitor Lakasta eta berdintasuna eta elkarbizitza ataleko zuzendari, Pilar Mayok hartu dute parte ikastetxeetako arduradunekin eginiko topaketan. Bileran, zerbitzuan eta programaren tutoretzan jasotako galdera ohikoak biltzen dituen dokumentua azaldu eta eman da. Dokumentu honek ohiko galderei erantzuna ematen die, esaterako: zergatik ikasi behar dago berdintasunean bizitzen? zertan datza SKOLAE programa? zer gertatzen da ikastetxean ikasten denak etxeko sinismen, erligio eta arau moralekin kontraesana sortzen badu?

Dokumentua Hezkuntza Departamentuaren webgunean egonen da eskuragarri hezkidetzaren programan interesa duen edonork kontsulta dezan eta eguneratuz joango da, horretarako zerbitzuak berak kanal bat sortu du gai honen inguruko galderak egin ahal izateko.